

2020KO PATOJAS BEKEN BOLETINA

2020KO PATOJAS IKASKETA
BEKEN PROIEKTUKO LABURPEN
BOLETINA


**ENTREAMIGOS
LAGUN ARTEAN**



**PATOJAS
IKASKETA BEKEN
PROIEKTUA**

2019KO LABURPEN DATUAK

Ikasturtea 163 ikaslek amaitu zuten.
Kurtsoa 169 ikaslerekin hasi zen,
baina pasadan urtean egin genuen
bidaian 3 beka gehitu genituen
egoera txarrean zeuden 3 gaztek
ikasteko aukera edukitzeko.

%70+

bekadunak, neskak eta
emakumeak izan dira.
GUZTIRA 103.

172
IKASLE

Ikasturtean zehar, arrazoi
ezberdinengatik, 6 patoja eta 3
patojok ikasketak utzi behar izan
zituzten. Ondorioz, 163 ikaslek
amaitu dute azken ikasturtea.

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
TALDEAK		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	TODOS SANTOS			1		1	1	3
	IXTAHUACÁN	1	2	6	5	7	4	25
	AJOMAYA			10	3	12	4	29
	CHIANTLA			9		4		13
SOLOLÁ	CEIBA			14		8		22
	S. L. TOLIMÁN	3		5		1		9
	NAHUALÁ					3	1	4
	CEDEPEM	1		14		1		16
QUETZALTENANGO	ANH	1		1				2
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	7	4	6	1	1	1	20
	SUMPANGO	2	7	10	1	3	3	26
GUZTIRA		15	13	76	10	41	14	169

2020KO IKASTURTEA

Este año han comenzado el curso 181 estudiantes. Siguen estudiando 129 y 16 no han podido continuar por diferentes motivos. Este curso hay 52 nuevas becas, 44 patojas y 8 patojos. En total, **148 becas** son patojas, lo que supone un **81,76%**.

%80+

Bekadunak neskak
eta emakumeak izan
dira

181

IKASLE

HORRELA HASTEN DUGU 2020A

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
TALDEAK		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	TODOS SANTOS			1		1		2
	IXTAHUACÁN	1	3	6	3	8	5	26
	AJOMAYA	2		10		12	5	29
	CHIANTLA			3		3		6
SOLOLÁ	CEIBA			11		13		24
	S. L. TOLIMÁN	4		5		4		13
	NAHUALÁ					3		3
	CEDEPEM			12		1		13
	OXLAJUJ E			6		6		12
QUETZALTENANGO	ANH	1				1		2
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	4	4	5	1	8	2	24
	SUMPANGO	3	5	10	4	4	1	27
GUZTIRA		15	12	69	8	64	13	181



2020KO IKASTURTE JARRAIPENA

Gure bekadunak ikasturte hau nola bizitzen ari diren kontatu nahi dizuegu. Data hauetan ikasturtearen erdia pasatuta dugu. Beste urte batzuetan, honezkero bekadunen kalifikazioak eta gutunak jasoko genituzkeen, baina COVID-19 birusaren pandemiaren ondorioz bizitzen ari garen salbuespen-egoera dela kausa, ezer ez da berdin. Eta ikasturte honek ofizialki martxan jarraitzen duen arren, erronka handia izaten ari da gure gazteentzat.

Azaldu genizuen bezala, Guatemalan ere egoera oso konplikatua da. Une honetan, kutsatuen eta hildakoen kopuruak gorantz jarraitzen du. Datu hori oso kezagarria da, batez ere kontuan hartuta herrialdeak aurretik zuen osasun-egoera. Oraindik, ezin dute kalera irten arratsaldeko seietatik aurrera eta, asteburuetan, mugak dituzte. Uztailen, igandeetan beren etxeetan konfinatuta egon beharko dira.

Ikastetxeak itxita jarraitzen dute, eta, oraingoz, ez dago horiek irekitzeko datarik aurreikusita. Gazteek beren etxeetan ikasten dute, kasu askotan modu birtualean eta lanak internet bidez egiten, beste batzuetan irrati, telebista edo ariketa-koadernoak erabilia... baina guztiek ezin dituzte lanak egin, ez daukatelako horretarako bitartekorik.

San Lucas Tolimaneko eskolan, adibidez, irakasleek 15 egunean behin ariketak banatu izan dituzte familien artean, gazteak etxean ariketak egiten jarraitu ahal izateko. Behin amaituta, ariketak eskolara eraman eta irakasleak zuzenketak eta jarraipena egin dute. Azken egunetan, formula berri batekin lanean hasi dira. Orain, irakasleak klaseak ematen grabatzen dira, eta bideo horiek herriko telebista publikoan emititzen dituzte. Horrela familien segurtasuna bermatzen dute, batzutan eskoletan jende piloa biltzen baitzen ariketak jasotzerakoan.

MOMENTUZ, ESKOLAK ITXITA JARRAITZEN DUTE ZABALTZEKO DATARIK GABE...

Denbora guzti honetan, harremanetan gaude gune bakoitzean bekez arduratzen diren pertsonekin. Diotenez, orain arte gazte guztiak daude ondo. Une honetan, kasu positibo batzuk ari dira agertzen bekadunak bizi diren hainbat tokitan, eta Marta Lidiak (Xenacoj-eko beken arduradunak) jakinarazi digunez, berak eta bere familiak bazterkeria eta isolamendua jaso dituzte biztanleriaren eskutik, bere aita COVID-19 ez den beste arrazoi batzuen ondorioz hil ondotik. Hainbesteko presioa jasan dute, ezen PCR proba egin behar izan baitute gaixo ez zeudela erakusteko.

Momenturarte jaso ditugun eskutitz batzuk erakakutsiko dizkizuegu, ikusteko gertutik bekadunek nola bizi duten egoera hau.

Lehenengo hau, maiatzean jasotako San Ildefonso Ixtahuacango lehen hezkuntzako 5. mailako patoja baten eskutitza da.

Yo me encuentro bien madrina, me siento muy contenta con mi mamá y mis hermanitas, vivo en una aldea bonita, en la casa tengo gallinas y Chompipas, tengo 3 perros, tengo un gatito que se llama puma y me gusta mucho jugar, escuchar radio, juego en la casa con mis hermanitas, no voy a la escuela ahora por la enfermedad de coronavirus, estoy en la casa, estoy pastoreando mis chivos y voy con mi mamá a traer leña muy lejos. Caminamos una hora media, me gusta trabajar a limpiar milpa con mi mamá porque yo no tengo papá que me está dando la comida, a veces comemos tortillas con sal porque no tenemos dinero. Tengo ganas de estudiar, este año estoy en quinto primaria y cuando sea grande quiero ser maestra y trabajar duro para cuidar a mi mamá. Te doy ...



"HAU GUZTIA, PROIEKTUARI EMAN DIOZVEN
LAGUNTZARI ESKER LORTU DUGU"

Beste hau, uztailean jasotakoa. Dibertsifikatuko 6. mailako patojo batena.

Bueno me da gusto Valverte a escribir y Contarte como esta la Situación ya con todo esto que esta pasando lo de la Pandemia que esta afectando con fuerza a nuestro País tanto la economía se ha visto muy afectando y los casos aumentan con gran Velocidad día con día que hasta la fecha los casos van más de los 500 infectado por día etc. ya con todo esto que pasa en nuestro País me he visto o nos hemos vistos afectado en el tema de los estudios ya que ahora se esta recibiendo clases por linea todos las días Siguiendo el consorcio que teníamos antes de que empezara la Pandemia no digo que recibir las Clases de esa manera esté mal eso implica un costo día con día, recibimos 7 horas de clases y como mínimo se gasta 30 Q diarios en recargar para conectarse a la clase y si uno no se conecta pues se pierde las clases y ahora mas que nunca nuestra economía esta más afectada que nunca porque no hay trabajo no podemos salir mas de nuestro Municipio de ahí uno tiene que ver como nacer pero hay días que no hay y no hay de otra que no recibir las Clases.



GAUTEMALA GAUR

Herrialde guztietan bezala, pandemiak osasunean eta hezkuntzan ez ezik, herrialdeko ekonomian ere ondorio lazgarriak izan ditu, batez ere sektore informalean lan egiten duten pertsonen artean, hots, biztanle gehienen artean, etxeko lanetan nahiz merkatu nahiz kaleetako salmenta ibiltarietan baitabiltza asko eta asko. Gazte ugari familiako lanetan lagundu behar izan dute, bai etxean, bai kanpoan.

Ondorioz, gerta liteke familia askok seme-alabak eskolara ez bidaltzea, kutsatu ez daitezen. Horrek eskola-desertzioa are gehiago haztea eragingo luke.

"NESKA GAZTEAK ETA EMAKUMEAK HEZKUNTZAN SARBIDEA IZAN DEZATEN ALDE EGITEN DUGU "

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/educacion-la-desercion-escolar-una-amenaza-pospandemia/>

Eskoletako azpiegiturak ez daude prestatuta berriz ireki eta osasun-baldintza egokiak bete ahal izateko. Horietako askotan ez dago edateko urik ikasleek eskuak garbi ditzaten. Neurri hori da, izan ere, COVID-19ren kutsatzeak prebenitzeko gomendatutakoetako bat. Halaber, irakasle eta ikasleek ez dituzte beharrezko babes-ekipamenduak.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/coronavirus-escuelas-deben-ser-mejoradas-antes-de-considerar-el-regreso-a-clases/>

Eta, orain, nola egingo zaio aurre aurre klaseak modu telematikoan eta etxetik egiteari? Gobernu eta Hezkuntza ministerioak, aurkeztutako estrategiako bigarren fasean, #AprendoEnCasa kanpainia martxan jarri dute. Horrekin, patoja eta patojo guztiak etxetik klaseak ematen jarraitzeko aukera izango dute.

Horretarako, edukia sortzen ari dira, besteak beste irratia eta telebistako programak, auto-ikasketarako gidaliburu inprimatuak, bai eta eskola-liburutegi digital bat ere, irakasle eta ikasleentzat, ikasleen gaitasunak garatzeko baliabide digitalak jasotzen dituenak

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/desafios-de-la-educacion-ante-la-crisis-del-covid-19/>

Komunikabideak ere, kasu honetan Guatemalako Pentsa Libreak, neurriak hartu dituzte gazteei edukiak hurbildu, eta, hala, etxetik ikasten laguntzeko. Hemen ikus dezakezue ekimena:

<https://www.prensalibre.com/vida/salud-y-familia/prensa-libre-publicara-nueva-serie-aprendoencasa-del-mineduc/>

Baina, zer diote adituek? Adituen esanetan, argi dago ikasturtea luzatu egin behar dela, ikasleek zikloa amaitu dezaten. Hezkuntza-sistema moldatu eta garai berrietara egokitzearen garrantziaz ere hitz egin dute.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/ciclo-escolar-debe-reinventarse-luego-de-la-pandemia-opinan-expertos-en-educacion/>

Beken batzordetik, eta zuen laguntzarekin, lanean jarraituko dugu gazte guztiek ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten.

Guztiok bizi dugun egoera honetan ematen diguzuen laguntza eskertzen dizuegu eta egun proiektuan sinisten jarraitzeagatik ere. Hezkuntzaren bitartez mundu hobeago bat posible dela uste dugu eta horretan, elkarrekin, lan egiten jarraitzen dugu.

Araceli, Madalen, Nati y Nely.